

FELLOWS GIPUZKOA PROGRAMA TALENTUDUNAK ERAKARTEKO ETA EUSTEKO (GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALA) – [GAO 53 zbkia. 2026ko martxoaren 20](#)

Helburua

Nazioarte mailan garrantzia duten ikerketa taldeetan doktoratu osteko formazioa jaso duten ikertzaileak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen Gipuzkoa zentroetan sartzeko laguntza.

Diruz lagundutako jarduerak:

	Talentudunak erakartzea	Talentudunei eustea
Helburua	Nazioarte mailako formazioa duten pertsonak erakarri nahi du entitate onuradunen jardun esparruetan proiektuak gauzatzeko, eta gero, hurrengo fase batean, EAEko ikerketa talderen batean sartzeko.	Jarraipena eman, gehienez hiru urtez, Fellows Gipuzkoa Programaren bidez lagundu diren ikerlariei, ikerketa talde batean sartu arte.
Kontratutako pertsonaren betekizunak	-Doktorea izatea. -Doktoratu osteko formazioan arituak, dagokien esparruan nazioarte mailako garrantzia duen ikerketa talde batean. Ikertzailea kanpotik erakarri dela ulertuko da baldin eta azken hiru urteetan ez bada 6 hilabete baino gehiagoz lan egin Euskal Herrian.	
Jarduerak gauzatzeko epea	Kontratua gauzatzeko epea urtebeteko izango da. Diruz lagundu beharreko jarduerak eskabidea aurkeztu den egunetik aurrera hasiko dira. Eta 2027ko irailaren 30a baino lehen amaituko dira.	Kontratua gauzatzeko epea urtebetekoa izango da. Diruz lagundu beharreko jarduerak aurreko deialdian diruz lagundutako erakarpen- edo atxikipen-jarduerak amaitzen den egunetik aurrera hasiko dira. Eta 2027ko irailaren 30a baino lehen amaituko dira.
Kontratuzko diruz lagunduko zenbatekoak	Kontratuaren 1. urtea: %100 arte, gehienez ere 50.000 euro. Kontratuaren 2.urtea: %80 arte, gehienez ere, 40.000 euro. Kontratuaren 3.urtea: %70arte, gehienez ere, 35.000 euro. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Legearen 22.artikuluaren kontrataziorako kostu zenbatetsia 61.154€ euro dira. Ikerketa-talde hartzaileak bere gain hartuko du laguntza horrek estaltzen ez duen kontrataziorako kostua. Era berean, ikerketa-talde hartzaileak bere gain hartuko du kontratuaren kostu osoa, hurrengo urteetan laguntza ematen ez baldin bada, ZTBk ezartzen dituen 3 urteetan ikertzailearen jarraitasuna betetzeko..	
Webgunea	Web eskaera	

Kontaktua	UPV/EHU rrhh-inves.dgi@ehu.eus 946018169	Gipuzkoako Foru Aldundia berrikuntza@gipuzkoa.eus 943112216
------------------	---	--

Eskaerek aurkezteko epea:

2026ko apirilaren 29ra arte

EHUren antolakuntza:

- **2026ko apirilaren 27ean**, azken eguna **Gipuzkoako Foru Aldundiaren** aplikazioan sortutako eskaeraren zirriborroa bidaltzeko rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbide elektronikoari. **Bidalitako mezuan kofinantzaketa-iturriak adierazi beharko dira.**
- **2025ko apirilaren 27an, 12:00etan**, azken eguna aplikazioan dokumentazio guztia igotzeko.
- Deialdiaren amaiera data: **2026ko maiatzaren 29an.**

Horrela egin ezean, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak ez du ziurtatzen eskaera garaiz sinatuko denik.

Erakundearen datuak:

- CIF: Q4818001B